

Banaketa eta komunikazio kanalak

Gure denda online izango denez, ez dugu denda fisikorik izango hasiera batean. Ondorioz, gure produktuak bezeroei helarazteko bidalketa bidez egingo dugu. Horretarako, MRW enpresarekin kolaborazio bat egingo dugu, izan ere, enpresa oso ona eta fidagarria dela pentsatzen dugu eta gure bezeroek ahalik eta seguruen eta azkarren eskuratzeko produktuak. Gure sedea Erratzun dagoenez, penintsula osora bidaltzeko gai izango gara. Gure enpresak kamioi bat izango du, pertsonala eta honen bitartez produktuak garraiatzeko gai izango gara. Gure produktua, sedetik aterako da eta kamioien bitartez MRW enpresara bidaliko da, eta orduan, enpresa hori izango da bezeroari helarazteko arduraduna. MRW enpresan produktua entregatzean, beraiekin hitz egin beharko dute arazoren bat balego.

Bezeroak gure produktuetako bat eskuratu nahi badu, gure web-aren bitartez egingo du. Dudak eta abar argitzeko, gure kanal nagusia Whatsapp eta telefono deiak izango dira. Enpresa telefono bat edukiko dugu eta gainera Whatsapp telefono bat, non hainbat langile egongo dira kargu. Posta elektroniko bat ere edukiko dugu. Interneten egongo da gure enpresaren informazio osoa eta hori gutxi balitz gure aplikazioan informazio osoa eskura izango dute bezeroek. Kritikei edo komentarioei dagokionez, bezeroei erantzuten saiatuko gara, bezeroekin harreman onenenak edukitzeko.